

“DONOSTIAKO UDALEKO UDAL GOBERNUARI ETA TALDE POLITIKOEI
KEXA ETA ESKAERA TURISTA OLDE HANDIKO GUNEA HANDITZEAGATIK ETA ELA, LAB, CCOO
ETA UGT SINDIKATUEK JARRITAKO MOZIOARI EMANDAKO TRATUAGATIK. ELA, LAB, CCOO ETA
UGT SINDIKATUEK AZALTZEN DUGU

Hemen aipatutako sindikatuek, berriz ere, Partaidetzarako Arau Organikoaren 14. artikuluan oinarrituta, gure kexa eta desadostasuna adierazten dugula Donostiako Udalak 2016rako egin zuen turista olde handiko gunearekin (aurrerantzean TOHG). Eta Arau Organiko beraren 13. artikuluan oinarrituta, eskatzen dugu kontuan har dadila 2017ko TOHGaren birdefinizioan inplikaturako eragile guztien iritzia eta sostengu handiena duen proposamena aukeratzea.

Gure ustez, handitze horrek merkataritza marka handien interesei erantzuten die, ez du babesten merkataritza txikia eta sektoreko langileen atsedenerako eskubidearen eta familiako bizitza bateratzearen aurkakoa da. Gainera, merkatarari zein kontsumitzaileen elkarrekin bermatzen dute gure autonomia erkidegoak gaur egun irekiera nahikoa onartzen duela gure erkidegoko edozein zonatan edozein merkataritza eskariri erantzuteko.

Horregatik, hemen sinatu dugun guztiok zenbait jarduketa egin ditugu TOHG 2015erako adostu zen baldintza beretan ezartzeko. 2015erako onartutako neurriaren eta egungo Gobernu Taldeak onartutakoaren arteko alde nagusietako bat da, zonaren hedapenez gain (jakina), Udalak eragile sozial eta ekonomikoei emandako partaidetza maila. 2015ean hartutako erabakian, sindikatuak zein merkatariei kontsulta egin zitzaigun eta gure eskaerak kontuan hartu ziren; 2016rako hartutako erabakian, berriz, merkatarien kasuan badakigu dagoeneko hartuta zegoen erabaki baten berri eman zitzaizela, eta sindikatuak dagokienez, prentsaren bidez jakin genuen erabakiaren berri.

Aurten, maiatzean, lau sindikatuek, EH Bilduren eta Irabazi Donostiaren sostenguekin, mozio bat jarri genion Udalari gure desadostasuna helarazteko jasotako tratuagatik, problematika korporazioaren barruan eztabaidatzeko eragile sozial eta ekonomiko interesdun guztiekin eta, bitartean, TOHG 2015erako bezala mugatuta egoteko.

Egindako bileretan zein jarritako mozioaren aurrean Udalaren ezezkoa biribila izan da. Joko arau minimo batzuk errespetatuko dituen partaidetzazko demokrazian oinarritutako praxi bat ez dagoela ikusita, kexa formal hau helarazi nahi dugu. HAU ESKATZEN DUGU

1.- Partaidetzarako Arau Organikoaren 13. artikuluan oinarrituta, kontuan har dadila 2017ko TOHGaren birdefinizioan inplikaturako eragile guztien iritzia eta sostengu handiena duen proposamena aukeratzea.

2.- Partaidetzarako Arau Organikoaren 18. artikuluan oinarrituta, kexa eta eskaera aurrez aurre tratatzea haren egileekin, 2016ko urriko Batzordean eta Udalbatzan erantzuna izateko, garrantzi handiko gaia delako, eragina baitu sektoreko langileen eskubideetan eta hiriko plangintza ekonomiko eta sozialean.

Donostia, 2016ko uztailearen 11”.